PRAKTIKA ASISTENTZIALETARAKO ARAUTEGIA

(Gipuzkoako Ataleko Batzarrak 2018ko uztailaren 5ean onartuta)

- Praktika klinikoak nahitaezkoak dira Erizaintzako Graduko Practicumeko irakasgaietan matrikulatuta dauden ikasleentzat. Hauek dira irakasgaiok: Zaintzarako Praktiketako Hastapena, Practicuma I, Practicuma II, Practicuma III, Practicuma IV eta Practicuma V.
- Komeni da ikasleek aurretik Practicumeko irakasgai bakoitzaren programan begiratzea, jakiteko zein baldintza behar dituzten kasuan kasuko irakasgaia egiteko.
- Uniformea: mantala, alkandora botoiduna, prakak, galtzerdiak eta zapatak, denak ere zuriak eta osasun arloko arauak betetzen dituztenak. Ezinbestekoa da UPV/EHUko ikaslearen identifikazio txartela bistan eramatea. Bi uniforme eduki behar dira, txukuntasuna bermatzeko.
- Praktiken ordutegia: ezinbestekoa da unibertsitateak eta praktiken zentroak adostutako ordutegia betetzea. Praktika klinikoen orduen barruan ikaslea ezin daiteke praktiken zentrotik irten.
- Praktiketan eragina daukan gorabehera edo istripuren bat gertatzen bazaio, ikasleak horren berri eman beharko die bai begiraleari eta bai irakasle tutoreari.
- Ikasleak praktiketara huts egin behar izanez gero, horren berri eman beharko die aldez aurretik bai begiraleari eta bai irakasle tutoreari, eta hutsegitea justifikatu eta errekuperatu egin beharko du.
- Ikasleei baimena emango zaie Erizaintza kongresuetara joateko, aldez aurretik irakasgaiaren arduradunari baimena eskatzen badiote. Gero, kongresura joan izana egiaztatu beharko dute. Ikasturte bakoitzean gehienez ere hiru egun natural emango dira kongresuetara joateko.
- Aldi baterako ezintasunaz daudenean, ikasleek ezin izango dituzte praktika klinikoak egin.
- Praktiken zentroan grebarako deia eginda badago, ikasleak ez dira praktiketara joango.
- Gomendatzen da B hepatitisaren kontrako txertoa hartuta izatea, bai eta kasuan kasuko zentroak eskatzen dituen gainerako txertoak ere.
- Practicumarekin zerikusia duten eskariak egiteko, ikasleek zentroaren eskari eredua erabiliko dute.

GIPUZKOAKO CAMPUSA
CAMPUS DE GIPUZKOA
Begiristain doktorea, 105
20014 Donostia
Gipuzkoa
T: 943.018.000
F: 943.017.330